

# GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

40. zenbakia

94ko urtarrilak 28



## San Blasak Idiazabalen

Nafarroa, 23  
20200 BEASAIN

Nagusia, 6  
20240 ORDIZIA

**FOTOETXE**  
**Goen**  
FOTO

**Video  
Monitoring  
System**

• LABORATEGIAK BERTAN  
BIDEOZ KONTROLATURIK



*Idiazabalgo Udalak jai zoriontsuak opa dizkie idiazabaldar eta goierritar guztiei.*

### ***Idiazabalgo Udala***

#### **SAN BLAS OILATEGIA**

*Pedro Jose Iparragirre*

- Arraultz salmenta
- Bertako produktu ona
- 30 urteko esperientzia

Zelaieta Auzoa ☎ 80 12 58 (oilategikoa) — ☎ 80 11 75 (etxekoa) IDIAZABAL




## **JASO EQUIPOS DE OBRAS S.A.**

Garabi garaiak eta kargagailuak eraikuntzaren beharrizanei aplikatutako teknologia modernoa

- ◆ **Fabrikazioa**
- ◆ **Salmenta**
- ◆ **Alokatzea**

☎ 801377 - Faxa: 800020  
N-1, 415 kma. IDIAZABAL





## GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

40. zenbakia. 94.eko Urtarrilak 28. Debaldeko alea. Tirada: 3.500 ale. 3.000 harpidedun.

**Argitaratzailea:** "Goierritarrak"  
Kultur Elkartea.

**Dorre-etxea, 1. (Correos-gainean).**

**Tfna: 889612. Faxa: 161463.**

**124 posta kutxa, Ordizia.**

**Erredakzioa:** Jon Arano, Mikel Albisu.

**Publizitatea:** Josune Agirre.

**Erredakzio Batzordea:** Andoni Sarriegi,  
Tere Irastortza, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon  
Imanol Iturrioz, Ane Martin, Loinaz Agirre,

Nekane Altuna, Jesus M. Munduate, Amaia  
Balerdi eta Estitxu Imaz.

**Ale honetako kolaboratzaileak:** Dionisio  
Amundarain, Marijoxe Madariaga, Joxe Be-  
girstain, Ana Irastorza, G. O. T., Rufino  
Iraola, Xabier Mendiguren, Antonio Bera-  
sategi, Gabino Murua, Argider Mujika, Iñaki  
Amundarain, Andoni Alustiza eta Jon Ander  
Gorospe.

**Azala eta zenbait argazki:** Fotoetxe  
**Fotokonposaketa eta maketazioa:**  
**GOIERRITARRA. Inprimaketa:** ANTZA,



S.A. (Industrialdea, 1-2. Lasarte-Oria)

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain  
hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazi-  
tako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## NON ZER



### 4. eskutitzak

**5. agenda:** *intereseko telefonoak, gastronomia, bota ber-  
tsua, Idiazabalgo festak, Ordiziako azken feria, de-  
baldeko iragarkiak, egutegiak...*

**8. iritzia txandaka:** *Goierriko Objektore Taldea*

**9. besteez esana, inkesta,** *Nola egiten diozu aurre  
neguko hotzari?*

**10. berriak labur**

**12. elkarrizketa:** *Joseba Jaka: "larre motzean hazitako  
liburu-saltzailea"*

**14.-20. herriz herri**

**21. kirola:** *Bergara IIa erretiratzeko da*

**22. hemen eta orain**

**23. Musika:** *Drindots*

### 14. San Blasak Idiazabalen

**GOIERRITARRA** etxean jaso nahi dut

**NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT**

IZEN-DEITURAK .....

HELBIDEA.....

HERRIA..... TLF. ....

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jasotzen du

**GOIERRITARRAK**  
**GOIERRIKO**  
**UDALEN**  
**LAGUNTZA DU**



## Itsasondoko Parrokian, elizkizun-ehorzketa baten inpresioak

Suertatu zait urtarilaren 4ean Juan Otegi Mujika zanaren ehorzketa-elizkizunetan parte hartzea. Eliza bete-betea, adineko jendea nabarmen zelarik. Bi motibu banituen elizkizunetara joateko: bat, nere aitaren gorpua "Fernando-enea"n zelarik (etxe honetaz "Nautiko"ko jabea nagusitu zen neri eta "Oargi"koei bota ondoren), Juan Otegi berau agertu zan protokolo-ikustaldia egitera; bi, Juan zanaren semea, Joxe Mari eta biok elkarrekin topatu gera laisterketa "popular" pilo batean.

Elizako hiru akats nabarmendu-ko nituzke. 1) Barruko tenperatura gutxi gorabehera 14-15'koa izango zan. Etzan asko kostatuko berogintzari piztualdi bat eman eta, 18'ra iritsian, itzali. 2) Sermoilariaren mikrofonotik 10 metro inguru aurkitzen nitzen ni eta hala ere hitz erdirik ez nion ulertu. Suertatu nintzen bezperan Donostiako Karmelitan, ni bizi naizen etxe bertako 4. bizitzan (hementxe bizi izandu zan, gerra aurretik, Ariztimuño "Aitzol"

apaiz tolosarra). Karmelitan 86 urtetako auzokide baten ehorzketa-elizkizunetan parte hartu nuen, eta distantzia berdinetik (10 m.) sermoilariaren hitz denak ulertu nituan. Ondorioz, Itsasondoko Parrokiako megafonia ez dago ondo. 3) Komunio aurretik banatu ziren 20 edo 30 bat orri "Sinistu dut" abestiarekin, baina Elizan giñen 80-100 bat pertsona. Neri, gehienari bezela, ez zidaten halako orririk banatu. Orregatik erdi-mutututa abestu nuen, San Frantzizkoko Lurrikara filmearen abesti zoragarria. Akats hau konpondu zitekeen fotokopiak aterata (Udaletxean bertan).

Ni Itsasondon bizi nintzenean Elizako argiak, sobrekarga edo auskalo zergatik, itzali ziren. Eta orain 19 urte geroago berdin gertatu da. Ikusten denez arazo hau konpontzeko dagoela. Badakit akatsak ez direla larriak, baina horrenbeste miloi pezeta inbertitu eliza berritzen eta iruditzen zait gerta ezinezkoak direla.

 Jokin Sarasola (Donostia)

## Festa eztabaidan?

Poztu ere egiten naiz ni, egia esateko. Festak nolakoak izan behar duten; ez da txantxetako gai arina, ez horixe. Hobe nahaste pixka bat, dena artaldearen moduan hartzea baino, ona izan, txarra izan. Gauzak bide hobetik eramateko lagungarri izango da. Idiazabalgo Udaletxeko eztabaidan, hitza eta sentimendua ikusi nituen bat eginda gure kontzejalen ahoan; garrantzizko gaietan jartzen den suharra.

Festa gauzez, egunez ala bietan behar da? Ez da hori bakarrik, famili barruetako haserre eta kontrakotasunak lehenagokoak eta sakonagoak izaten baitira. Guraso batzuen kezak -askorenak, beharbada- tabernak ordu jakin batean isterekin konponduko balira! Zer egiten dute gazteek eta gazte izan zirenek egunero eta asteburuetan herri honetan? Zer egiten da bizimodua aberasgarriagoa egiteko? Festaren aitzakian, beste herritar batzuei zor zaien errespetoa -haien eskubidea, esango nuke nik- galerazten dela? Horrelakoak nahi eta noiznahizeko moduak badaude, festetan eta festa ez denean. Azter ditzagun, hortaz, gure festetan eta festez apartekoetan zabaltzen ditugun baloreak. Festan ere eztabaida.

 A. Berasategi (Idiazabal)

Modulo hau

**3.000 pzta.**

kostako zaizu

10 aldiz eginez gero

**2.500 pzta.**

**LEIAR**

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 888824  
BILTEGIA: Salbatore Industrialdea. ☎ 886070  
BEASAIN

**IRUROK**

**OLABERRIA** ☎ 88 51 50



**ZUHAIZKI**

**Zurgindegi Mekanikoa**



**-LEIHOAK, ATEAK  
ETA ABAR**

**-ESKAILERAK  
NEURRITARA**



Beko kale, z/g.  
Tel. 88 71 26  
Faxa: 16 10 77  
**ITSASONDO**  
(Gipuzkoa)



# Agenda

## Intereseko Telefonoak

### ORDIZIA

|                          |        |
|--------------------------|--------|
| Gurutze Gorria .....     | 272222 |
| D.Y.A. ....              | 464622 |
| Anbulategia (Ordizia) .. | 881165 |
| Anbulategia (Beasain) .. | 880759 |
| Eskualdeko Ospitalea ... | 723813 |
| Ertzantza .....          | 887350 |
| Udaltzaingoa .....       | 884005 |
| Suhiltzaileak .....      | 881362 |
| Udaletxea .....          | 885850 |
| Ongizate Saila .....     | 888250 |
| Obralan Bulegoa .....    | 882465 |
| Kontuhartzailatza .....  | 887600 |
| Kultur Etxea .....       | 881280 |
| Herri Antzokia .....     | 880744 |
| Majori Kiroldedia .....  | 889333 |
| RENFE .....              | 283039 |
| Oiangu Baserria .....    | 889106 |

## Errezeta



**Juanito Rubiok emana**  
**Zaldiak jatetxea,**  
**Olaberria**

**MAKAILAU SOLOMOA PIPE-RRADAREN KREMAREKIN**

**Osagaiak (4 pertsonentzat):**

**800 gr.- kilo 1, makailau solomo freskoa, garbia**

**2 tipula, 4 pipar berde, pipar gorri bat edo pote txiki bat eta 2 tomate heldu**

**Piperradaren krema:** tipula, pipar berde eta pipar gorriak xerratu eta olio pixkabatekin zartagian egin, tomatea pusketetan gehitu eta 15

minutu egiten eduki. Pasa-puretik pasa eta gero txinotik krema gehiago fintzeko. **Makailau solomoa:** makailaua 4 pusketetan zatitu, fuente batean jarri olio pixkabat bota gainetik eta laberra sartu 10 minutuz 200 gradutara.

**Mahairatu:** Plater batean piperradaren krema jarri, gainean makailau pusketak bat eta pipar gorri eta berde tira frijitu batzuekin apaindu.

## Bota bertsoa



**Joxepa Madariaga**  
**Gaia: hau da hotza!**  
**Doinua: "Txoriak eta txoriburuak" (Amuritza)**

Zilegi denez egin dezala garaiean garaikoa,  
ez bait da inoiz ona izaten beti eta betikoa:  
udan eguzki goxo-goxoa,  
berotzeko hainakoa,  
neguan berriz, hotza, izotza ta elurretik nahikoa.

Lapikokoak eman ohi digu beroa eta indarra,  
gorputza ere noizbehinka edo mugitzea ez da txarra,  
jantzi arropa lodi-lodiak, berrien gainean zaharra eta halere hotzak bazaude edan ezazu pattarra...!

## OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA  
NATUROPATA

*Eska ezazu eguna eta ordua*

Goierrri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

## Serraqi

TAPIZERIA - DEKORAZIOA

Goierrri, 12  
Tfnoa: 88 31 53

ORDIZIA



## Autowag, s.a.



Errepide Nagusia, N-1. 419 Kma.  
Tfnoak: 88 82 66 - 88 82 54

BEASAIN



JATETXEA

BARROSIA

ALTZAGA

GAITEZ

885235

Itzalende: Ordizia



## ARGAZKI DENDA

Argazkien errebelatua ordu betean

Tfnoa eta Faxa: 88 04 78  
Nafarroa Etorbidea, 1.

BEASAIN



## Debaldeko iragarkiak

### Lana

□Zure inprenta lanak egingo ditugu GOIERRITARRA: kartelak, inprimakiak, festa-programak, buzoneatzeko inprimakiak, eta horrelako mota guztietako lanak. Dei 889612 telefonora lasai asko.

□Etxekoandre bat prest dago etxekolan eta bulego garbiketarak egiteko, 880733ean.

### Salerosketak

□Ordenagailua salgai, oso egoera onean: Schneider Euro XT, 20 MB disko gogorra, 2 disketerak, sprinter 180 inpresora, zenbait programa eta materiale, 125.000 pzta. Tfnoa.: 889640.

□Nintendo bideo-kontsola eta 4 joku salgai, 12.000 pzta. 882000 tfnoa.

### Etxebizitzak

□Neska edo mutil bat behar da pisua konpartitzeko Ordizian. Dei GOIERRITARRA: 889612.



## Egutegiak



### Kultur Ekintzak

#### Ordizia:

**Otsailak 3tik 18ra** Peio Etxeberria pintura erakusketa Kultur Etxean.

#### Beasain:

**Urtarrilak 30ean** "Abereen Etxaldea" filmaren proiektzioa La Salle-San Jose Ikastetxean, 16,30etan.

#### Deialdiak

#### Ormaiztegi:

"XIX mendea, bi munden arteko zubia" Erakusketa ihardunean dela gogorarazi 31 arte, Kultur Etxean ikusgai. Otsailetik aurrera proposamen pedagogiko bat gehitzen du Zumalakarregi Museoak eta ikastetxe eta kultur gune eskatzaile guztiei maileguan utziko zaie erakusketa hori, maleta didaktiko gisa erabil dezaten. XIX mendeko gipuzkoar ondare historikoa 155 argazkiren bi-

dez: garai hartako erretratuak, gaurko argazkiak, ikuspegi oso desberdinak gure Historiaren garai erabakior bat ezagutzeko. Informazio gehiago eska ezazu Z.M.ra deituz: Xabier Kerejeta, 889900.

#### Ormaiztegiko Udalaren Bandoa

Udalerri honetako biztanleei jakinarazten zaie, altzari, elektragailu eta baliarik gabeko traste zaharren bilketa 15ean behin egingo dela, hilabeteko 1. eta 3. ostiralean hain zuzen (otsailak eta martxoak 4 eta 18an).

#### Goiztiri AEK

Goierriko Goiztiri AEK Euskaltegiak 2. matrikulazio epea (otsaila-ekaina) zabalik du otsailaren 11 bitarte. Maila guztiak, goizez 2, 3 eta 5 orduko saioak, eta arratsaldean eta gauetan 2 ordukoak. Ikastaro hau Udaletxeek subentzionatua da. Informazio gehiagorako

edo matrikula egiteko: Ordizia, Sta. Ana Ikastetxea, 889174 tfnoa. Beasain, Kale Nagusia, 5-3.a. Lazkao, Antsotegi, 889340 tfnoa.

#### Ordizia/Beasaingo Goardiazko botikak:

**Otsailak 1:** Atorrasagasti; **2:** Azpilikueta; **3:** Jauregi; **4:** Laurnaga; **5-6:** Azpilikueta; **7:** Cuesta; **8:** Arriola; **9:** Urbizu; **10:** Atorrasagasti; **11:** Azpilikueta; **12-13-14:** Jauregi; **15:** Laurnaga.

#### Ordiziako Herri Antzokia:

**Urtarrilak 30:** "Mira quien habla ahora", 4'45; "Algo para recordar", 7'30-10'15; **31:** "Algo para recordar", 7'30; **Otsaila: 4, 5, 6 eta 7:** "Aladin".

#### Ordiziako Mendizaleak

**Otsailak 6:** Larraitz-Alotza-Gañeta-Uarrain; **13:** Oreatik-Tolosara (Iñauteriak).



**GENERALI**  
Aseguroak

**IÑAKI ARIN BAZTARRIKA**

Oriako Pasealekua, 20

Tfnoa: 88 87 02

BEASAIN

TAPIZ ETA GAINEZTADURA  
TAILERRA

**B I O K, c. b.**

Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.  
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

### URBITARTE Sagardotegia

-Sagardo denboraldiz kanpo ere irekirik as-teburuetan betiko sukaldaritzarekin



Enkarguak: 888331  
ERGOIENA AUZO  
882719 ATAUN



**ZABALE**  
OKINDEGIA  
DIETETIKA

- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa María, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA



## Ordiziako azoka

**Bertako produktuak.** Abe-reak: Arkuma (250 burutik gora salduak), 375 pza.-k. **Bertako gazta, arraultz, landare eta barazkietan** apenas eman da aldaketarik aurreko asteetatik. **Ehiza** (bakoitza): birigarroa, 80-100; eperra, 700-800; oilagorra, 1.800; usoa, 500-700. **Kanpoko produktuak:** anana (piña), 250 (k.); banana, 250-275; kiwia, 150-200; laranja 75-130; limoia, 150; mandarina, 150-250; sagarra, 100-150; udara, 175-225. **Barazkiak:** azalora, 150-200; baba, 200; horburua, 200 k. Ilarra, 350; kardoa, 300-350, leka, 500-550; patata, 40-45. **Pipergorria**, 325; berdea, 300; tomate, 175-200. **Arrainak:** amuarra, 650. Antxoa, 550; antxoil, 1.160; bakailua, 1.200; errodabailoa, 1.700; itsasoilarra, 1.190; izokina, 1.300; kariokita, 890; legatza 2.000; mediana, 1.520; mihiarraina, 1.300; perlit eta sardiña, 450; txipiroia, 1.130; txitxardina (angulak), 13.000. Txitxarroa, 690; zapoa, 1.130-1.590.

Gurutze Aldabe

## SAN BLAS JAIK IDIAZABALEN

**Otsailak 2, asteazkena (Kandelaria eguna)** 17,00etan merienda umeentzat plazan, Buruhaundi eta guzti; pailazoak ondoren pilotalekuan. 18,00etan Badminton txapelketa kiroldegian; 19,30etan Audiobisuala Kultur Etxean, "Bidaia ezezagun bat Gipuzkoan zehar", Luisi Glez. Katarain ordiziarak eskeinia. Ohizko meza eta Kandelabedeinkazioa. 20,00etan ohizko Kanpai-bueltakoak eta txistularien kalejira. Ondoren Jaiei Pregoia eta Suzko-zezena.

**3, osteguna, San Blas (Umeen eguna)** 10,00etan Txistularien kalejira (egunero). 11,00etan Meza Nagusia, Aita Leonardo Zelaiaren "Jaungoiko Santua". Ohizko Erroskila-bedeinkazioa; hamaiketakoak ondoren Bikario-etxean. 12,00etan Herriko Txirindulari Lasterketa nagusia. Eguerdietean herriko trikitilariak kaletik. 16,30etan Umejokuak plazan, Suz-

ko-zezena gero. 18,30etan Afizionatu mailako Eskuzko Pilota partiduak Igarondon: Aritz eta Galarza, Insausti eta Gelbenzuren aurka; Artola eta Imaz, Agirre eta Bazetaren aurka. 19,30etatik goizaldera, Egan-en dantzaldia.

**4, ostirala, San Blas Txiki (Ezkonduen eguna)** 11,00etan ohizko Hamaiketako plazan, trikitilariak. 12,00etan A. Egaña eta S. Lizasoren bertso-saioa. 13,00etan Axari Dantza-taldea. 17,00etan Herriko Pilota Txapelketako azken partiduak Igarondon. 18,30etan talo eta sagardo dastaketa plazan, nahi duten guztientzat. 23,00etan Helduen Danborrada. 19,30tik 21,00etara eta goizaldean Joselu Anaiak-en dantzaldia.

**5, larunbata (Koadrilen eguna)** 10,00etan eta 15,00etan Herri mailako galeperren tiroketa, Iparagireren eskonbrera ohian. 12,00etan Paella-erraldoiaren kozinaketaren hasera,

napar-jotak entzungai. Eguerdietean "Poteo do-torea" eta 14,30etan paella-jana bazkarian. 16,30etan Hauaren danborrada. 18,30etan Nesken Futbol txapelketako azken partidua futbito pistan. Ondoren mutilena. 22,30etan Pala-partiduak Igarondon. 11etatik 03,00etara Zezen-mekanika futbito pistan. 11,30etatik 04,00ak arte dantzaldia: Iratxo.

**6, Igandea** 10,00etatik 13,00ak arte Probintzi-mailako Bolajokoa. 12,00etan Eskalada txapelketa Rokodromoan herritarren artean. 13,00etan Ordiziako Bandaren Kontzertua plazan. 18,00etan X Dantza Txapelketa mugatua Igarondon. 19,30etatik 21,30etara eta 23,00etatik 02,00etara Joselu Anaiak.

**Oharrak:** Kultur Etxean herritarrek egindako eskulanak ikusgai. Bertsolariak Mujika jatetxean izango dira San Blas Txiki egunez, bazkalondoan.

## BATZOKI TABERNA

Pintxo eta kalamarretan espezialdua

Nagusia, 24 IDIAZABAL ☎ 18 71 25



## ANAIK GARAJEA

MEKANIKA ETA IBILGAILU-KONPONKETA

Guardiko Industri-Poligonoa Tfnoa: 80 11 32

IDIAZABAL (Gipuzkoa)

## ETXEZAR Zurgindegia

Bautista Oiarbide

Kale Nagusia, 2 IDIAZABAL ☎ 80 02 11

## ODEI Taberna

Kafe-krema espazialak

Nagusia, 29 IDIAZABAL

## AXARI jantzi denda

Nagusia, 6 IDIAZABAL ☎ 80 19 84





## Goierriko Objetore Taldea

**“Goierrin  
50tik gora  
intsumiso  
eta 500 bat  
eragozle  
konta  
ditzakegu”**

Testu inguru honetan (ikus 39. GOIERRITARRA) ez da harritzekoa hainbeste gaztek intsumisioaren bidea aukeratu izana eta kopurua urtez urte igotzea. Dagoeneko 5.000 baino gehiago lirateke estatu osoan dauden intsumituak (bai soldaduskari, bai OZS-PSS-ri), horietatik 3.500 inguru Euskal Herrian daudelarik. Aipagarria da ere estatuan diren 100.000 eragozleetatik %10 bakarrik ari dela ordezkio zerbitzua betetzen, postuen eskaintza murriztak ez baitu gehiagorako ematen eta 89.ean gobernuak 25.000 eragozle zuzenean erreserbara pasatzea dugu ezintasun horren lekuko. Garrantzitsua da ere aipatzea eragozle legezkoen artean ia erdiak uko egin diola PSS egiteari, edo uko egingo diola deitua den momentuan, intsumituen kopurua gehituz.

*Goierri mugatuz, dakigunaren arabera 50tik gora intsumitu eta 500 bat eragozle konta ditzakegu, azken haueetatik intsumitu zenbat bihurtuko diren ez badakigu ere.*

### Egungo egoera

Arazo honen aurrean gobernuak eman duen erantzuna: errepresioa batetik eta legegari partxeak jartzea bestetik. Horrela, 92 urte olinpikoan, soldaduska 9 hilabete-tara jeisten da, zozketak ordenadorez egin eta intsumituak epaitegi zibilen eskuetan erortzen dira, Nafarroan epaitu eta zigortuen errekorrak hausten direla. Azkeneko “goxokia” Belloch jaunak kontzientzi presoei eskeinitako 3. gradua genuke, egunez lan egiteko kartzelatik

## Goierrin ere, militarismoaren aurka (eta II)

irtetzeko aukera ematen duena. Neurri hau despenalizazio bezala aurkeztu izana, gure ministroaren umore beltzaren azalpen gisa hartzea besterik ez zaigu falta.

Politika honen ondorio zuzena da gaurdaino epaituak



izan diren ehundaka intsumituak, gehienak nafarrak, 18 gipuzkoar eta horien artean 2 goierritar. Epaileek, orohar legearekiko ezadostasuna agertu badute ere, ez dute zalantzarik izan kasu gehienetan eskatutako 2 urte-4 hila-bete-egun 1-eko zigorrak ezartzerakoan. Baina zirkoa hasi besterik ez da egin, 2.000 lagun baitaude datozen hila-betetan epaiketa-fartsa haue-tako bat bizitzeko gertu, zigorrak aurrez erabakita dau-dela.

Bitartean, bere barrenak agindutakoa modu baketsuan azaltzea beste “deliturik” egin ez duten 124 kide ditugu estatuko kartzelak betetzen. Hauetako 50 (33 nafar, 4 bizkaitar) 3. graduaren ustezko

abantailari uko egin diote, arazoaren irtenbidea hori ez dela garbi adieraziz, nahiz eta erabaki honek pertsonalki oinazea eta konpromezu handi-agoa suposatzen dien. *Nork esango du orain intsumituak indibidualistak, berekoiak eta antisolidarioak direnik?*

Gure aldetik behintzat, garbi daukatu intsumisioa gizarteari atxekitutako jarrera bat dela eta neurri horretan gizarte osoak duela arazo hau konpontzeko erantzukizuna, erakundeak barne. Alderdi politikoei eta Eusko Legebiltzar-ak intsumisioaren alde

egindako adierazpenak edota Udal gehienek agertzen duten jarrera, positiboak izanik ere, ez dira askotan maila sinbolikotik pasatzen. Gizarteak berak eta batez ere gazteok eraman beharko

dugu aurrera borroka hau, arlo eta toki desberdinetan bul-tzatutako ekimenen bidez:

Alde horretatik oso baikortzat jo daiteke Joseba eta Juankar goierritarren epaiken inguruko mobilizazioetan emandako erantzuna; aurretik horrelako erantzunak sendotzea espero dugu, egungo egoera larriak hori eskatzen baitu. Intsumiso gehiago izateak ere badu garrantzirik eta G.O.T.ak, bide honetatik gizarte hobeago baten alde lanean jarraitzeaz gain, laguntzeko eta informazioa jasotzeko gogoia duen edonori astearteren batean (19,30tik aurrera) Ordiziako Gaztetxera hurbiltzeko esan-go genioke.



## Besteek esana

Kontuak kontu, une gozo eta atsegiñak igaro nituan nere jaioterrian il onen 15'ean. Bein bear eta zorretan etorri nintzan Zeraindik. Alkate jauna aurretik zala ura tolesgabeko arrera xamurra egin zidatena nere erritarrak. Leenagoko eta oraingo lagunak besarkadak, zorionak eta ongiatorriak artzean makiñabat oroitzapen etorri zitzaizkidan gogora. Onelako uneetan nabaitzen dan poza ez da ordaintzen omenaldi bat hartzearekin. Zerain leengoa da zorionez. Zerain bizi da eta biziko da, nik uste. Euren izakerari eusteko eta erriaren nortasuna zaintzeko eta gordezko zeraindarrak daukaten ardura ikusi egin bear da.

**Inozentzio Oleak,**  
"D.V."-n, 94-I-19an.



## Inkesta



### Nola egiten diozu aurre neguko hotzari?



**Mikel Garmendia**  
**Zaldibitarra, 23 urte**  
**Soldeatzailea**

Hotzari aurre? Ba batez ere lanean. Soldeatzailea naitenez, ez da batere kalefazio txarra! Dena den, nahiago dut hotza beroa baino, jantzi eta ondo aguantatzen da. Hobe da bai hau, ez dutxatiki atera eta izarditan jarraitzea. Gainera, hau de hotza egiteko garaia.



**Jesus Mª Garmendia**  
**Zaldibitarra, 27 urte**  
**Dendaria**

Egun hauetan hotz handia egin du, baina ondo jantzi eta ejerzizio fisikoa egin, pascoak eman eta korrika eginez ez dago hotzik. Gustatzen zait hotza, behar bada beroa baino nahiago dudala esango nuke.



**Migel Dorronsoro**  
**Aldabatar ordiziratua, 66 urte**

Ibiliz egiten diot aurre hotzari. Gaur ere 18 bat kilometro egin ditut. Ibili ezker ez dit bildurrik ematen, ez baita hotzik izaten. Gainera ez naiz batere etxean egotekoa eta ez dut bertan asko aguantatzen.



Hirigoien, 12  
LAZKAO

☎ 16 10 16

Carasa, Cilveti, Lacort y Cia., S. A.  
**EKAITZ BULEGOAK**  
Aseguruen korreduria  
Martin Alustiza

Domingo Unanue, 3  
Tfona: 88 69 53

ORDIZIA

**BERRIZ ARANBURU**

**ERROPADENDA**

Nagusia, 8  
Tel: 88 04 53

BEASAIN



BITXITEGI - ERLOJUTEGI

Legazpi kalea, 4  
Tfona: 880406  
ORDIZIA



## Ba al dakizu...?

**SEGURA.** Gipuzkoako AEK-k zozketatu berri duen urte osoko soldataren (hileroko 150.000 pzta.) errifa, goierritar bati, Pablo Gereñu Makazaga "Lastala" segurarrari suertatu zaio. Zozketa abenduaren 21eko itsuekin atera zen, eta 76.657 izan zen zenbaki saritua. Pablo ezkongabea da eta Ampo-n langile jarraitzen du. Portzierto, bera aritu zen errifak saltzen eta 26 bat berak hartu zituen. Oraingo honetan famatua egingo da horratio Goierrin! Pozik egongo al da... Zorionak!

**ATAUN.** Bertako J.M. Barandiaran Eskolak urtarilaren 5eko "Del Niño" loteriarekin batera zozketatutako logelaren zenbaki saritua 8.036a da. Deskuiduan, hilabete barruko epean inor azalduko ez balitz saria jasotzera, 0425 zenbakidunak eramango luke. Bestalde, JMB Eskolako Otsoa Irratian emisora berria jarri denez gero, hemendik aurrera bere frekuentzia 108a izango da. Dakizuen bezala, ikasleen irratsaioak ostiralero 1etatik 2,15etara entzun ditzakezue Ataunen.



**Aiztondo baserriko Imaztarren aita bizkarka jeitsi behar izan zuten, bihotzekoa jota zela eta medikuarengana joateko bide egokirik ez dutelako. Imaztarrak herriko beste etxe batetara aldatu dira, bidea lokazti baitute eta inkomunikaturik baitaude bestela. Aiztondokoak itxialdia burutu udal-txean eta alkatesa salatu dute. Diote-nez, orain 3 urte bide-konponketa onartu bazen ere, oraindik ere hondatuta dago. Alkatesak 20 urte atzerago-ko arazotzat dauka honakoa eta, dioe-nez, ez du ikusten borondaterik kalte-tuengan hau konponbidera eramateko.**

**BEASAIN.** Pasa den urtarilak 15ean Lizeo Alkartasunako guraso eta bazkideek bilera apartekoa izan zuten

Antzizar polikiroldegian, zenbait gai garrantzitsu eztabaidea-tzeko. Bilerako deialdia Lizeo-ko Juntak egin zuen, Eskola Pu-blikoaren aldeko direnen zen-baitek (gurasoen %10ak) Jun-tagan konfidantzarik ez zutela-ko. Ondorioz bozketa egin behar zen, jakitearren juntaki-deek zenbateko konfidantza zuten beregain. Goizean, 9eta-tik 1etara, informazioa eman eta jasotzeko bilerara 100-150en

bat pertsona besterik ez ziren bildu. Arratsaldeko 3etatik goizeko 1etara bi bozketa egin ziren: konfidantza ara-zoaren bozketa, eta konfidantzari uko egin zitzaionez, juntakide berriak au-keratzeko bigarren bozketa. Bozketa hauetan, 800 bat pertsonak parte hartu zuten eta beste 300en botoa ordezkatu zuten.

**Ekonomia-aktualitateko** zenbait egunkarik ekarri dutenez, Asiako merkatuetan sartu da dagoeneko CAF, 23 trenet hornituko baitu Hong Kong. 10.000 milioietako baloreko kontratua egin du Fabrika Haundiak oraingoan.

**Gipuzkoan iruzur egiten duen biko-tearen berri eman du Ertzaintzak.** An-tza denez, banketxeko langileak direla

**JAUREGI  
TOLDOAK s/n**

Tfonoak: 880243 - 880133  
BEASAIN

**lues  
rothers**  
BEASAIN

**LAZKAO  
GARAJEA**


**RENAULT**  
AGENTZIA  
Senpere Industrialdea  
882442-888901  
Faxa: 888901  
LAZKAO



**NAUTIKO Jatetxea  
eta  
IZASKUN Pentsio-Ostatua**

ITSASONDO

Tfinoa: 88 00 12



Tfinoa: 885500

ORDIZIA



esanez, pertsona edadetuei eta jubila-tuei ordainketa aginduak sinarazten saiatu dira bi iruzurgileok. Beasainen baserri batean saiatu ziren iruzur egi-ten, bertan bi adindu baino ez zirela bizi jakin eta gero. Gertakizunekin segiz, konpontzen ari diren N-1 errepidean Andres Fernandez Masso idiazabal-darra hil zen istripuz hilak 18an, trafiko-koko seinaleak kazkabarrak izkutatu zituela-eta. Bukatzeko, lubizi bat izan da errepide sarreran eta obrak egin beharko dira.

**ORDIZIA.** Rufino Iraolak abisatzen digunez, oraindik orain banatu dira Leioako Udalak antolatzen duen bertsopaper lehiaketako sariak. 14 urtez azpikoetan Ordiziako Alaitz Sarasola izan da irabazle, 49 partaideren artean. Alaitzek borobilduriko sailak "Txakur baten gogoetak" du izenburua. Nagusi krudelak automobiletik atera eta bide bazterrean utzitako txakurra ari zaigu hizketan. Sentimendu eta animalienenganako maitasunez beteriko bertsoak izan behar dute.

**Bertako Gazte-Informazioarako** Bulegoan hirukoiztu egin ziren, iazkoan, kontsultak. 93.ean 3.355 kontsulta egin ziren bulego horretan, 800 bat aisialdiari buruzkoak, 700 bat heziketa-mundukoak, e.a. Gazte-jendea gehien kezkatzen duena soldadutza da. Ordiziakoez gain, Goierriko gazteak ere

inguratzen bide dira bertara. Urte amaieran bukatzen zitzaion kontratua bere ardura daraman Koro Ruiz-i, baina beste sei hilabetetarako luzatu zaio.

**Ordizian** bizi den Stuart Kelling eskoziarrak F.A.B. musika taldea (Five Against Baldy, Bost Burusoilaren aurka) sortu berri du, Xabier Auzmendi, Igor Oiarbide eta Mikel Caballero goierritarrekin batera. Maketa bat grabatzen aritu dira eta berehala entzun ahal izango dugu... ingelesez. Aurki Londresera joateko omen dira, han jotzera. Zorte on!

**12** erakundek eskatu diote Ordiziako Udalari laguntzak Hirugarren Mundurako. Bide irekitzaile izan da Udala bere aurrekontuaren %0,7a banatze horretan eta Plenoan erabaki beharko dira aurtengo dirulaguntzak.

**ZEGAMA.** San Martingo elizaren errestiturazio-lanak hasi dira, Obispaduaren eta Diputazioaren adostasuna eta jakitunen aholkularitza izango dutela. Aurrekontua 6 milioitik gorakoa da eta altare eta beste berregingo dira. Diru-laguntza eskaera luzatu die bertako parrokiak zegamarrei.

**MUTILOA, GABIRIA ETA ZERAIN.** Bertako urak kutsatzen ditu azken hilabeteetan itxirik dagoen Troiako "Exminesa" mehatze esplo-




Alaitz Sarasola Arg.: Rufino Iraola

tazio ohiak. Lakuako Gobernuak en-kargatutako ikerketa batek zianuroen presentzia aurkitu du Gesala, Mutiloa eta Estanda ibaietan. Mineralen tratamenduen ondorioa izan behar du, "Egin"ek zekarrenez.

**LEGORRETA.** Urte haserarekin, legealdi honetarako proiektu handienari ekin dio bertako Udalak: udal-letxe berria egiteari, alegia. Iazko abenduan eginiko aparteko udalbatzan eta eztabaida sutu baten ondoren, onartu egin zen obraren proiektua. 150 milioietako aurrekontua izango du. Hona hemen bozketaren emaitzak: aldekoak 5 (3 EAJ, 1 EuE eta 1 HB); abstentzioak 3 (1 EAJ, 1 EuE eta 1 HB).

## Nolako Etxea amesten duzu?



## ETXEBIZITZA UNIFAMILIARREN BI PROIEKTU HASTERA GOAZ GOIERRI BAILARAN

⇒SAR ZAITEZ HASIERATIK GUREKIN

- Zure etxebizitza diseinatzeko
- Pisu bat baino merkeago aterako zaizu

CONSTRUCCIONES **ZALDIBI** ERAIKUNTZA

**ZALDIBIA** Tfonoak: 88 64 35 - 16 00 89 Faxe: 88 93 07



“ELKAR”, “ZABALTZEN” ETA “BILINTX”-EN GIDARI DA ZEGAMARRA

## Joseba Jaka: “Larre motzean hazitako liburu-saltzailea”

**E**uskal Herriko liburutenda, banaketa-sare eta argitaletxe garrantzitsueneko gidari, 45 urteko goierritar honek zeresan handia du euskal kulturak aspaldi honetan izan duen aurrerakadarekin. Baserritar zailduaren begi zorrotza eta enpresari abilaren sena elkartu ditu, eta horiei euskaltzetasun-ametsa erantsi, irabaziak beti kulturaren onetan inbertitzeko. Hala ere, gaurko honetan Joseba Jakaren hasieraz aritu gara, hortik aurrera-koak (Iparraldeko aldia, Bilintx dendaren sorrera, e.a.) hurrengo baterako utzita.

### 9 urterekin morroi

Gurasoak nafarrak baditu ere, Zegaman jaioa da, Aristizahar baserrian, Otxaurten, baina 6 urte zituenetik Mendiatakoak ziren Jakatarrak. 7 anaietatik, Goio, Jon, Bixente eta Xanti berarekin ari dira lanean egun, liburutani. Liburu-usain handirik ez zen orde, garai hartan. “Gu familia behartsua ginen eta 9 urte nituela morroi joan nintzen bertako Aranzelai baserrira. Han egon nintzen 14 bete arte,

orduan pintxe sartu bainintzen Zumarragako Irimon. Gurasoekiko tratua halaxe egin zuten, 14 urterekin lana bilatuko zidatela, eta nik urteak horren zain eman nituen”.

Baserriko lanak gogorak ziren, baina ez zen horregatik. “Okerrena, ni han ume bakarra nintzela, eta beste umeekiko kontaktu bakarra, anaiekin igande arratsaldean ematen nituen bi orduak ziren, horretarako 6etako mezatara joan eta gero etxeko lan guztiak egin da”. Eskola gehiegirik gabe, bulegoko pintxe sartzeko proba psikotekniko batzuk pasa behar zituen eta bizikletan ibiltzea, enkargutarako eta. “Nik, berriz, bizikletan jakin ez eta gure etxean batere txirrundurik ez ikasteko. Hortaz, Aranzelaikoen familiako batzuegana joan nintzen Idiazabalera, eta hangoen bizikletarekin ikasi nuen 3 egunetan, neuk bakarrik, nahiko muturreko hartuta. Handik urtebetera, berriz, neure bizikletarekin karreretan ibili nintzen, jubeniletan. Egundoko afizioa nuen baina aurki utzi nuen, 17rako”.

### Kontrabandoko erlojuak saltzen

Polita kontua... “Lazkao Txikik esaten zuen bezala, beharra da ikaslerik onena, eta fabrika ere horrelaxe egin nuen aurrera. Irimo Zumarragatik aparte gelditzen da, eta ofizinan askok bidaltzen ninduten tabako bila. Nire lan guztiaz gainera hori eginda, 9 ordu beharrean 10-11 sartzen nituen egunero. Horregatik esan nion enkargatuari, ea hantxe eduki ntzakeen tabako-kaja batzuk, eta saltzen nuen ba-koitzeko erreal bi irabazi. Gero, konfiantza bazutenez, korreosen eta kontrabandozko pultsera eta erlojuak-eta eskaini zizkidaten, saltzeko. Merke-merkeak ziren, Marruekoskoak edo; inguruko artean saltzen nituen eta ondo. Horrela hasi nintzen. Aurki, elektrodomestikoak saltzeko eskaintza egin zidaten, frigorifikoak eta... Horretarako garai egokia zen eta asko saldu nuen. Zegama aldean ibiltzen nintzen, baserriz baserri, larunbat arratsaldeetan, beste ordurik ez bainuen libre, kontabilitatea ere ikasten nuen. Hala

### IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

#### KARROZATEGIA

Hiribarren, 24  
Tfnr. 88 95 83

20210 LAZKAO  
(Gipuzkoa)

*Lirain*

Lurrindegia eta Opari Gaiak

San Inazio, 14 ☎ 88 93 90 BEASAIN



Inprimategia

**EGUZKI**

Nafarroa Etorbidea, 9  
Tfnr: 88 94 82  
20200 BEASAIN



**MUJKA**  
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94  
ORDIZIA




irabazitako dirutxoekin erosi nuen bikikleta, eta gero motorra, soldata oso-osorik etxean uzten bainuen, behar handia zegoela eta”.

Zegaman bizi ziren 14-15 urte zituela ere, eta Jaka trenez joaten zen Zumarragara, beste langileak bezala. “Baina gero, aitak ere Orbegozon egiten zuenez lana, hara joan ginen, Eitzara. Garai horretan, saltzen ondo nekiala ikusita, egunkarietako iragar-kiei erantzuten hasi nintzen. Gogoratzen naiz behin, 16 nituela, Donostiako hotel batera joan behar nuela, liburuak saltzeko anuntzio bat zela-eta; eta bestela aintzat hartuko ez ninduten beldur-zez aitarekin joan nintzen. Hala hasi nintzen liburu saltzen: ‘La Gran Enciclopedia del Mundo’, Biblia mordoa eta... Fabrikan baino gehiago irabazten nuen liburuekin, eta 19 nituela ezedentzia eskatu nuen Irimon. Nire tokian Jon, anaia sartu zen, Aranzelai utzi nuenean hara morroi joan zen berbera: beti nire ordezkot”.

## Soldadutzan euskaltzaletu

Euskal liburutik ere saltzen zuen. “Kredituzko salmentan ibiltzen nintzen, etxez etxe, eta Sendoako Joakin Berasategi Olaberrikoak ‘Margoederdun Entziklopedia’ eskaini zidan. Ordurako dexente ibilita zegoen bilduma hori, baina hala ere asko saldu nuen, abuztu batean Ondarroan bakarrik 170. Beste garai bat zen hura: ikastolen hasiera, Burgosko auzia... Harrera hobia zuen euskal produktu batekin zihoanak eta bata bestearengana bideratzen ninduen: Joan zaitez harengana, interesatuko zaio eta”.

Hasieran, Josebarentzat, hura beste produktu bat besterik ez zen. Baina erosleen bitartez hasi zen kontzientzia



pixka bat hartzen, Euskal Herria zer zen eta. “Hala ere, gauzak benetan argitu, soldadutzan egin zitzaizkidan. Logroñon egon nintzen, eta makinaz banekienez bulegoan sartu ninduten. Pernokta ere lortu nuen eta pisu batean egon ginen. Han ezagutu nituen orain koinatu dudak Joxe Manuel Odriozola altzoarra, lankide dudak Martin Leunda ‘Toloxa’ eta beste asko. PSOEko buru den Manu Escudero ere laguna nuen. Politikaz, erlijioaz, denez aritzen ginen. Ni nintzen han ideiak argi ez zeuzkan bakarra eta bakoitzak berera eramaten ninduen. Arratsaldez liburuak saltzen segitzeko aukera eskaini zidaten baina ezetz erabaki nuen. Denetik irakurri nuen orduan: Marx, Lenin, Bakunin, Teilhard de Chardin kristaua, Gandhi. ‘Erotuta al hago, nahasketa horiekin?’ , esaten zidaten, baina nik ikasi egin nahi nuen”.


Soldadutzatik bueltan diru-eskain-

tza handiak egin zizkieten liburu-salmentako etxeek: alde honetako ordezkari eta hileko 200.000 pezeta. “70ean, pentsa, oraingo milioi pareta edo. Hala ere, kredituzko salmenta hori desegokia iruditzen zitzaidan eta utzi egin nuen. Horrekin batera, ikastolak ere hortxe zeudenez, euskarazko liburuetan hasi nintzen mugitzen. Inaki Beobidek ateratako Walt Disneyren liburu batzuk... Gero, norbaitek ikastolarako apunteak baldin bazeuzkan, larunbatetan haiek multikopistan atera, sailkatu, grapatu, eta horrela ibiltzen ginen, ikastolaz ikastola. Hori irabazirik gabe. Irabazietatik ere, gero Mapfren ibilitako Elias Arreseren eta beste batzuen ideia izan zela uste dut, komisioren erdia ikastolarako testuak egiteko uzten hasi ginen. Gordailu taldearekin egin genuen akordioa eta hala atera ziren lehen testuak, Ikastola Liburutegia eta. Milioi t’ erdi utzi genuen horretarako”.

## 2.000 futbolari banan-bana

Diru asko ordurako. Oraingo 15-20 kilo edo. “Gauza asko egin ziren, baina askoz gehiago ere egin zitekeen, inprenta kontuak eta hobeto ezagutu ezkerro. Gogoratzen naiz Txillardegik matematikako liburu batzuk egin zituela, ikastolarako, eta halako batean konturatu ginen futbol-talde baten marrazkian 11 ez baina 10 jokalaria ageri zirela. Marrazkiak ere halamoduzkoak zirenez, anaiak ibili ginen, larunbat arratsaldeetan, 11 futbolaria pintatzen, 2.000 liburutik, banan-banan”.

 Xabier Mendiguren



# ondoeta

HALTZAIRUZKO ATEAK:

AUTOMATIKOAK,  
BASKULANTEAK,  
MARATILDUNAK,  
STANDARRAK,  
ETA ABAR.

Nagusia, z/g. Telef. 883102. Faxe: 880872. 20249

ITSASONDO



## IDIAZABAL

### San Blas 94: Festa kontuak eta bestelakoak

**F**estak egunerokotasunetik ihesalditxo bat egiteko parada ematen duela esan ohi da. Hala behar ere, horretan dudarik ez, baina erabaitzeko ihesa ezina dela erantsiko nuke. Badatoz Idiazabalgo festak, baina ezin -horraatik- eguneroko arazo guztiak alde batera utzi: festa onak nahi eta horretan asmatzeak lanak ematen ditu.

#### Noiz da festa herri honetan?

Festa aurreko egunotan, aspaldiko festa programen erakusketa egon da Liburutegian. 1.954. urtekoak dio, Tolosako Beotivar orkestinak eta txistulariek gaueko 10,30ak arte jo behar zutela; 11k bitartean azken egunean. Orduan 20 urteko gazte parrandazale zirenek, pentsatuko ote zuten, orain 60ko aitona-amona bihurtu direnean, ordu horretan hasiko direla heltzen inguruko herrietako gazteak?

Aurten, San Blas Txiki eguneko musika taldeak goizeko 5etan bukatuko du bere lana. Eta beste gauza batzuetan, festa batzordean eta Udaletxean eztabaida izugarriak izaten ez bada ere, badakigu azken urteetan erabakiak ez direla berehalakoan hartu. Kontzejalen artean festaren izaeraren gaineko eztabaida piztua da dagoeneko. Bere ahotsa lehenik azaldu zuen Iñaki Etxeberria EAko kontzejalak esan digunez, azken urteetan festa gauez luzatzeko datorren jokabidearekin ez daude konforme: "Bestelako kultura bat sortu behar da festen inguruan; ezin da, festak direlako, batere araurik gabe jokatu. Egunez ere egin behar da festa

eta ez dena gaueko parrandara eraman".

Horren harrian, eztabaida gehiago berotu da tabernen ordutegia dela eta. Agerikoa da guztiak ez direla EAko kontzejalaren iritzikoak; HBkoek udal plenoan garbi adierazi zuten: "Tabernak,

festetan elkarrekin konektatu eta ondo pasatzeko oso lagungarriak dira; ezin da hor ibili nahi dutenen askatasuna galeraziz; gogoko duenari utzi, ez du eta kalterik egiten. Uste duzue gazteak bide erorian doazela eta debekuz zuzendu nahi dituzue". Tabernariak zerbait ateratzeko urtean horrelako egun pare bat baino ez dutela ere esan zuten. Antton Irizar alkateak (EA) ere garbi hitz egin zuen, tabernen itxiera goizeko 5etan ezarri beharko litzatekeela arrazoitzen: "Iaz, kaleak garbitzen hasi zirenean, goizeko 8etan, oraindik ere jendea tabernan eta inguruetan zebilen; keja asko jaso ditut". Beste edozein zerbitzuek bezalaxe taberneak ere arauak errespetatu behar, alegia.

Eta bi aldeetakoek adierazi nahi izan dute badela bere aldeko jendea. Antton Irizar alkateak herritar gehienek berak



Argazkia: Fotoetxe

bezala pentsatzen dutela adierazi zuten. Asier Imaz HBko ordezkariak, berriz, beraiek horrelako gauzetan ezer esan baino lehen bere inguruko jendearen iritzia eskatzen ibiltzen direla utzi zigun garbi. Iñaki Etxeberria EAkoak, gaueko ibileren gaia bere taldean sakon aztertu dutela esan zigun; EAJ eta EUEko kontzejalak ere uste berekoak omen dira. Eta tartean tabernariak. Ez dute ezkutatu bere jarrera: "Festetan libre behar du, jendeak alde egin arte; iguruko herri txikietan ere (Segura, Zegama, Ormaiztegi) hala da eta Beasain-Ordizian 6,30ak arte, zarata arazo handiagoak daudelako, festetan eta aste bukaeraero ere".

Azkenik, tabernariei 6,30etan isteko eskatzea erabaki zen; denak konforme, baina inor ez gustora, uste dut.

## KONTXI HARATEGIA MIKEL JANARIDENDA

*Festa onak pasa!*

Nagusia, 14 ☎ 18 70 78 IDIAZABAL

## IRIONDO

Elektrizitatea  
Konponketa zerbitzua

*San Blas jai zoriontsuak!*

☎ 18 71 65 IDIAZABAL



# Idiazabalgo jaiak



Argazkia: Fotoetxe

## Zer festa dago hemen?

Festa ondokoak ere eman izan du hizpidea. 1.954 eta orduko haietan ez dakit, baina, azken urteetan ekarri du zer esana festetan egindako txikizioek: iaz, kioskoeko komunak, ez dakit nongo kristalak, Korta sakaneko buzoiak... Antonio Oiarbide algoazilari galdetu diogu bere iritzia: "Iaz komunak irekita uzteko esan zuten eta, haundi samarrak egin bazituzten ere, aurrekoetan ganberrokeria okerragoak izan direlakoan nago. Aurten beldur naiz kalean aldatu berri diren arbolatxo horiekin". Okerrena kanpotik datozenak izaten direla esateko, ez zaio mingaina korapilatu: "Bea-

saindik Santa Ageda gauean mokoa berotuta etortzen diren horiek".

Plenoan gai honi heldu ez bazitzaion ere, ez dut uste gogo faltaz izan zenik. Kontzejal batek esan zuelarik, goiz aldean "erdiak mozkortuta eta bazterrak kaka eginda" egoten

direla, ez da oso azeria izan behar zerekin lotu nahi zuen ikusteko; ez zegoen, jakina, tabernak libre uztearen alde.

## Bada dirurik festa egiteko?

Batzuek asko eta beste batzuek gutxi, seguru izan. Udalak gutxi ez, baina iaz baino gutxiago bai behintzat. 93ko 4,5 milioietatik, 4 milioi pasatara joan gara aurren; beste hitz batzuetan esteko, 2.000 pezeta herritar bakoitzeko. Mokadurik handiena, beti bezala, musikalariek ("Egan"ekoek 325.000; "Joselu Anaiak" 475.000 bi egunetakoaren truke; "Iratxo" 175.000).

Zergatik -galdetu diogu alkateari, krisia ailegatu al da? "Batetik bai, Di-

putazioak prebisio bajuagoak egin ditu eta gainera, gero, oraindik ere dirua bueltatu egin behar izan diogu (7-8 milioi). Gainera, obra haundiak izan ditugu. Kale Nagusikoa 150 milioi kostako da, hobe beharrez dena batera egin dugu eta; Diputazioak 72-73 milioi jarri ditu. Dena dela, ez dugu zor haundiegirik; Txomenareneko parkea erosteko kreditua eskatuta ere, presu-postuaren %14,6a".

Alkateak gaineratu digunez, festa batzordeak askatasun osoa izan du programa egiteko. Diru gutxixeago gatatzea komeniko zela besterik ez zitzaien esan eta txintxo ibili dira. Ez da desdostasun handirik ere izan programakoak erabakitzeke. "Azken urteotan beti horrela izan da" esanez bukatu du Antton Irizarrek.

## Zer egin festetan?

Eta festako saltsa nahastu ondoren, festa ospakizunen berria emateko leku gabe azkenean; programa zaharretan esan ohi zenez, "ikus eskuko orria". Etorri, ikusi eta ibili. Gonbite berezirik gabe datorrenak ere izango du zer ahoratua, zaletasun hori bai ari dela eta handitzen azken urteotan: Bikario Etxekoa, Udaletxekoa, taloa eta sagardoa, arroza eta poteoa... **On egin!**

 Antonio Berasategi

## ALAI Jatetxea



Jai  
zoriontsuak!

Etxegarate gaina  
Tfona: 80 12 83  
IDIAZABAL

## JERONIMO-ENEA

Taberna  
eta  
gasolina surtidorea

80 10 96 IDIAZABAL



MUJIKA  
jatetxea  
Kogote erreak,  
txuletak

Nagusia, 42 80 18 19  
IDIAZABAL



# Osakidetzaren oharra mediku-zerbitzuaz

Ignacio Garmendia medikua hil zenetik bere alabak bete izan du orain arte lanpostu hori, baina urtarilaren 10etik aurrera Lurdes Arriaga medikua ari zaigu zerbitzu hori eskaintzen. Ordu-tegi eta jokabideari dagokionez, gauzak zertxobait aldatu egin dira eta garrantzizkoa da oso ohar hauek kontutan izatea: mediku berriaren ordutegia gutxi gora-behera goizeko 9etatik arratsaldeko 3rak arte izango da astelehenetik ostiralera eta gure herrian izango duen kontsulta ordua, oraingoan, lehengo ordutegi berean izango da, hau da, horretan ez dago aldaketarik. Arratsaldeko 3etatik 5etara eta larunbatetan goizeko 9etatik arratsaldeko 5etara

mediku beharrez izanez gero, Zumarragako Anbulatoriora joan edo 724900 telefonora deitu beharko da. Baina, arratsaldeko 5etatik hurrengo goizeko 9ak arte eta igande eta jai egu-netan 24 orduz, premiazko asistentzi beharra izanez gero, 461111 telefonora deitu beharko dugu eta hauek arduratuko dira anbulantzia bidaltzeaz edo gaixoak beharrezko duen beste edozein gauzaz. Honela bada, goizeko 9etatik arratsaldeko 3rak arte herriko medikuarengana jo beharko dugu, eta ordutegi horretatik kanpo goian aipatuta koetara.

## “Makilari”ren 3. alea kalean

Jadanik esku artean dugu “Makilari”

aldizkariaren 3. alea. Aurreko biak baino zertxobait mardultxeagoa da eta, nolabait, aldizkaria sendotzen ari dela adierazten digun froga ederra. Honetaz gainera, herritarrek egin dioten harrera azpimarratu nahi genuke. Baina bali-teke oraindik ere baserri edo etxeren batera iritsi ez izana; horrela izango balitz, udaletxera joan edo gurekin harremanetan jartzea besterik ez duzue aldizkaria eskuratzeko. Gauza bera esan nahi genieke herritik kanpo bizi diren gabiritar guztiei, denontzat baitaude...

 Gabino Murua

## ZALDIBIA

# Baserriko tresnen erakusketa

Udaleko Kultura Batzordea baserri-ko tresnen erakusketa montatzen ari da, eskolamendeei esker hainbat baserri eta etxetan garai bateko lanabes zaharrak bilduz. Erakusketa herriko frontoi itxian egongo da ikusgai otsail osoan. Aranzadi Zientzia Elkarteko Fermin Leizaolak hartu du bere gain antolaketaren ardura nagusia eta arrakastatsu izateko bidean doala deritzogu. Ziur gaude hurrengo alean hori konfirmatzeko moduan izango zarela. Bienbitartean, etorri eta zeuok ikusi.

## Beti-Gazteren kuotak

Beti-Gazte elkarteak arduradunek ekin diote 94.ko kuotak kobratzeari. Ordainketarako egunak larunbatak eta igandeak izango dituzue, betiko eta ohizko orduetan. Epea edo plazoa, berriz, otsailaren azkenean amaitzen da, baina, azken orduko pilaketarik izan ez dadin, lehenbailehen etortzea komeni. Kartila zaharrenekin etorri behar duzue.

## Pilotako Euskal Ligan Zaldibia

Kadete kategoriako Jauregi eta Sukia pilotariak kanpaina bikaina egin

dute 93.ean, Euskal Ligarako klasifikatuz. Urtarilaren 16an hasi zen, ba, Euskal Liga hori. Bizkaiko Fernandez eta Varelaren kontra jokatu zuten, hemen Zaldibian, lehengo partidua, 22 eta 14 irabaziz. Buelako partidua zain daude orain. Bestalde, hurrengo kontrarioak Arabako Maeztu eta Iparraldeko Miarriztekoak dituzte. Ilusio eta emaitza onekin ekin dioten lehia honen azkena ere arrakastatsua izan dadin espero dugu, nola beraiek eta hala guk. Badakigu aurrera joango direna, non eta okerren bat ez duten.

## Arrantzarako lizentzia

Gaztelu Elkartek ohar hau egiten die kanpaina honetarako arrantzako lizentzia atera nahi duten guztiei: jo bezate elkartera, bulego orduetan, urtarilaren 22tik otsailaren 15era bitartean. Nahikoa epe luzea omen da eta ari denean saiatu behar denez, atzera-karga ibili gabe, interesaturik zaudetenok



Aitzol Sukia eta Aritz Jauregi pilotariak. Arg.:R.I.

lehenbailehen mugitu. Behar diren paperak eta gaineratikoak ez ahaztu.

## Guraso Elkarteen batzarrea

Urtarilaren 23an egin zuen Guraso Elkartek urteko batzarre nagusia. Honako puntu hauek dira aztertu eta erabaki zirenak: 93ko balantzea, Estatutuen tramitazioaren gaineko informazioa, proposamenak eta Junta berri-  
tzea.

 Rufino Iraola Garmendia



# Loinatzko San Martin Jaiak

Aspaldiko usarioa dugu Beasainen Loinatzko San Martin eguna ospatzekoa. Gure herriak Santu hau du bere zaindari eta hori gogoratu asmoz badira urtez-urte aurrera eramaten diren ospakizun batzu. Otsailaren 5a da Eguna, baina bezperan murgiltzen hasten gara jai-egitarauan. San Martinen berderatziurrenari bukaera emanez, otsailaren 4ko ilunabarrean, Sta. Agedaren ohorezko kopla kantariak ibiliko dira kaleetan zehar.



odolkien dastatze lehiaketa da, dudarik gabe. Urtarrilak 29an ospatzen da "Bareak" Elkartean, eta beste batzuen artean, Karlos Argiñano, Ramon Roteta eta Jose Juan Castillo izango dira bertan, odolki hauei buruzko iritzia ematen. Iritziak-iritzi, odolkioren kalitatea urtez-urte hobetzen doala esaten dute, eta badirudi gainera gero eta harakin gehiagok parte hartzen duela apaitutako lehiaketan. Ira-

San, Santuaren heriotzurrenean berriez, ohizko prozesioan Andra Mari Zeruratuaren Parrokiara hurbiltzeko ohitura dute Udaletxeko kideak eta gonbidatuak izaten diren kofradi gastronomikoetako partaideek. Bertan, 11etako meza entzun ondoren, berriz ere prozesioan jeisten dira. Jarraian, Udaletxeko Batzarre Aretoan, Odolki Kofradiak urteroko bilera ospatzen du, ohorezko kofrade berriak izendatzen dituztelarik. Goizeko ekitaldi hauei, eguerdi aldera egingo duten bazkariarekin emango zaie amaiera. Ilunabar aldera "IV Beasain Idazlan

Lehiaketa"n irabazle suertatu direnei sariak banatuko zaizkie Udaletxeko Batzarre Aretoan eta gualdean ez da afari-girorik faltako, herriko elkarte gehienek ere egun honetan egiten baitituzte beren afariak. Loinatzko San Martin Plazan ospatuko den dantzaldiarekin emango zaio amaiera larunbat honetarako prestatuta dagoen egitarauari. Igandean, musika banda ezagun baten doinua entzuteko aukera izango dugu plazako kioskoan.

Baina aipatutako ekitaldi guzti hauetatik entzueren gehien duena, Odolki Kofradiak antolatzen duen

bazle suertatzen denak, otsailak 5eko bazkarirako nahikoa odolki prestatzeko konpromezua hartu beharko du. Izan ere, odolkia izaten baita babarrunekin batera bazkari honen funtsa. "Beasain" jatorria lortzekotan omen dabilta odolki hauek, eta noski, Kofradiako kideen nahia ere hori da nolabait: gure herriko sinbolo hau lau haizeetara zabaltzea.

 Nekane Altuna

## IÑAKI ZUBELDIA



Bertako haragiak odolki, lukainka, saltxitxa eta aurrez prestatutako janariak

Nagusia, 14 ☎ 88 27 47  
**BEASAIN**

## LOINATZ Taberna Jatetxea

Bazkari, afari,  
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN



Gero jator eta atsegina

**BASAKANA**

ITURRIOZ 11  
BEASAIN

## JESUS DEBA HARATEGIA

**Odolki, lukainka eta  
bertako txekorretan  
espezializatua**

Zumalakarregi Plaza, 8  
☎ 882659 - 160075  
ORMAIZTEGI



## Museo proiektua aurrera doa

Bihar egun Joxemiel Barandiaran Museoa izango denaren proiektua egi-teari ekin dio K6 entpresak, Joxemiel Barandiaran Fundazioaren aholkulari-tzarekin. Hala izan dadin erabaki zuen Udalbatzak 93ko azkeneko plenoan, Foru Diputazioak horretarako diru la-guntza bat izendatzea onartu ondoren.

Asmo hau, Udalak duela bi urte agertu zuen Fundazioan, eta bertako partaide guztiek ere begi onez ikusten badute ere, oraingoz Gipuzkoako Di-putazioak eta Udalak hartu dute bere gain kostu ekonomikoa.

### Armuño

Jose Antonio Goikoetxea, guztion-tzat ezagunagoa den "Armuño" izango da, zalantzarik gabe, Lazkao Txikiren bertso eta atarramendu gehien ezagu-



Jose Antonio Goikoetxea, "Armuño".  
Argazkia: Joxe Begiristain

tzen dituen pertsona. Buruz baitakizki guztiak. Orain, haren lanekin borobil-tzen ari den liburu bat dela eta, Armuño dute agortu ezinezko iturria. Hori bai,

Armuñok ere baditu liburu on bat sor-tzeko adina "atarramendu". Ongi eto-rria izan bedi lehen liburu hori, eta ea noizko den bigarren hau!

### Andorrara futbolera

Egoitz Sukia Esnaola, 18 urteko gaztea, 2. mailako Futbol Txapelketan diharduen Andorrako ekipora joan da. Oraingoz denboraldi hontako kontra-toarekin, Kataluniako taldekin joka-tzen duen Andorra futbol taldean da urte haseratik. Egoitz, Espainiako pisu jaurtitzaille txapelduna den Iker Sukia-ren anaia da, eta hauen ama, Betiseko entrenatzailea ere izan den Esnaola atezain-ohi ospetsuaren arreba.

 Joxe Begiristain

## LAZKAO

## Bazterrak hankaz gora!

Aspaldian lokatza, zuloa, harrikax-karra eta hondarra daukagu nonnahi; mailu-hotsa eta burrunba eguneroko musika...Zelai eta zelai inguruan geni-tuen orma, eserleku, zoru, jolas-tresna eta harrapatutako guztiak ipurditik ate-ra dituzte. Kiroldedia ere itxia dauka-gu. Iturgaitzagan... Zer egiteko asmoa dago?

### Kiroldedia

Igerilekuko sabaia eta inguruko zo-rua, aldagelak (armairu eta eserle-kuak...) eta pilotalekuko pareta eta zorua erabat berritzen ari dira. Pilota-lekuko paretaren hezetasun arazoak konpondu asmoz beste orma bat erai-kiko da aldamenean. Igerilekuko lanak otsailerako amaitzekoak omen dira, Pilotalekukoak berriz, San Prointzio-tarako. Aurrekontuari buruz, 53 mi-lioitakoa da.

### Zelaia eta eliza ingurua

Komonak, Kioskoa, Bikarietxea eta Orobione arteko baratza eta zelaiko pare bat-hiru zuhaitz desagertze-ar daude; zoru guztia altxatu, argindar eta telefono hariak lurrarzpian sartu eta or-migoizko zoru berria botako dute.

Eliza atarian oraindik aterperik egingo ez bada ere, zorua berritze eta gaineko txukunketa guztiei ekingo zaie. Inguru honen txukunketak ga-rrantzi berezia du, izan ere Gune Mo-numentala ostzen duten eraikuntzen inguruaz ari bait gara: San Migel Pa-rrokia, Moja Zistertarren etxea, Du-kearen Jauregia...

Zelaiko lanen aurrekontua 48 mi-lioitakoa eta eliza atarikoena 29 mi-lioitakoa. Hurrengo batean Iturgaitza-ga auzoko lanei buruzko informazioa emango dugu.

### "Euskaraz bizi, bizi-bizi euskaraz!" ikastaroak

"Goiherriko Euskal Eskola" Kultur Elkartek eta Gerrikok ikastaro labur eta dotoreak antolatu dituzte: talo, pan-dero, yoga, bertso eta kantu zaharren ikastaroak. Hasiera-hasierako, oina-rrizko edukiak landuko dira, ordutegi desberdinetan, otsailean zehar guztiak, edozein pertsona helduk har dezake parte eta dohan dira. Urtarrilaren 27a baino lehen eman behar da izena.

Informazio gehiago behar izanez ge-ro, deitu edo jarri Mari Joxerekin ha-rremanetan, 16 02 82 telefonoan.

 Argider Mujika  
Mari Joxe Madariaga



## Zeraingo Museo lokala

Iazko abenduak 11, herri txiki baten-tzako oso garrantzitsua den ekintza bat bizitu zuen Zerainek. Urteetan lanean ari zen gure historiaren eta hainbat etnografi-gaien bilketan bertako kultur taldea eta gure nahiak asebetarik geratu ziren. Museo honek Zeraingo historia-ren islada izan nahi du, geure baserriak azpimarratuz, bertan eutsi baitzaie gure ohitura eta bizimoduari.

Museoa sortzeko arrazoiak ugariak izan dira: geure ondarea gordetzeko dugun betekizuna, hurrengo belaunaldiari begira. Izan ere azken 30 urteetan erabateko aldaketak eman dira, bizi-modu bat desagertzeraino. Geure ondarea bi alditan balora dezagun balioko du Museoak. Zeraina datorren edozein bisitaritzentzat eskaparate bat izan behar du, herriak a zer nolako aldaketa egin duen jabetu dadin. Foru Aldundi, Gipuzkoako Merkatal Ganbara eta Zeraingo Udalaren artean diseinaturiko garapen turistikoko proiektu osoan erakarmen haundia izango du puntu honek.

### Jarraitu den prozesua

Lehenik lortu nahi izan da, eta lortu dela ere esan liteke, museo hau benetan herriarena izan dadila; izan ere, Zeraingo biztanleen parte hartzea, bai sortzerakoan eta bai osatzerakoan, erakusketarako utziz dituzten gauzak eta erremintak, erabatekoa izan baita.

Kultur Etxearen ekimenez, gazte-talde batek inbentarioa egin zuen 92.eko udan, baserrietan zegoen material etnografikoa katalogatuz, 1.400 bat fitxa eratuz. 92ko urrian Fermin Leizaola J.ak material guzti honen aukeraketa egin eta ojetu ezberdinak



*Ikusgai dauden tresnetako batzuk*

*Arg: Mariflor Mendizabal*

baserriz baserri jaso ziren, udal-frontoian erakusi zirela hiru astez, lau ataletan: garraioa, sukaldeko tresnak, nekazaritzakoak eta mehatz, ehize, eta halako objektuak.

93.eko otsailean, Gipuzkoako Ganbararen laguntzarekin, turismo erruralaren garapen proiektu baten eta ondare historiko-kulturalaren birbalorapen markoan, Udalak Museo lokalaren proiektua elaboratu zuen. Bertan ez zen aurrikusten materiale etnografikoaren bilketa soilik, baizik eta Zeraingo historiaren erakusketa grafiko bat ere bai. Ekainetik abendu bitarte egi bihurtu zen Museo, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura eta Turismoaren departamenduaren laguntzarekin.

Museoa Parroki-etxea izanaren ganbaran kokatu da, gaur egungo Kultur Etxean. Etxea bera, berez da era-

karmen printzipalenetako bat duena, arkitektura herrikoia agerpen jatorra baita. Museo osabetetzen duten apartaduak honakoak dira: Aurkezpena. Zeraingo Historia. Zeraingo pertsonai ospetsuak. Ehiza, Arrantza, Uzta. Artzantza. Nekazaritza eta Abeltzaintza. Baserriko supazterra. Giza-erlijio aspektuak. Ikazkin eta egurzaleak. Hargintza. Mehatzagintza.

200 pieza dira guztira eta denak utzi izan zaizkigu musu-truk. Proiektu, diseinu, ikerketa, e.a., "Airu" Kultur Zerbitzuaren esku egon da eta argiztaketa, e.a. Fernando Diaz-enean.

*Andoni Alustiza  
(Zeraingo zinegotzia)*

Publizitate modulo hau  
**6.000 pzta.** kostako zaizu  
10 edo gehiagotan eginda **5.000 pzta.**

GOIERRITARRA

☎ 88 96 12

**MASAJISTA  
DIPLOMATUA**

*Xole Zubeldia*

Euskalerria, 8 ☎ 88 10 52  
ORDIZIA



# Gaztetxea martxan

Urte amaiera aldera lehen Jubilatuen Egoitza zena gazteentzako lokal bihurtu zitzaigun. Hasiera batean botatzeko asmoa zegoen, baina Udalak beste lekuri ez zeukala eta gazteei hori uztea erabaki zuen. Hango martxaren berri jakin nahian gazteengana beraingana jo dugu.

**-Nola sortu zitzaizuen lokal hau eskatzeko ideia?**

-Duela urtebete edo hasi ginen kontua-rekin, kuadrila mailan. Ormaiztegik gure adineko gazteari oso aukera gutxi eskaintzen dio, biltzeko lekuri ere ez geneukan, eta Udalari karta bat bidaltzea erabaki genuen. Hasieran ezezkoa erantzun ziguten, baina ez genuen etsi, eta zenbait bileraren ondoren lokal hau utzi digute.

**-Arauren batzuk edo jarriko zituen Udalak...**

-Bai, jarri dizkigu. Adibidez, ordutegia (astegunetan arratsaldeko 5etatik gaueko 10ak arte, asteburuetan gaueko 12ak arte) eta adin mugak (12-18) ezarri dituzte, eta alkohola eta erretzea debekaturik daude. Garbiketa lanak geure kontu geratzen dira. Lokala helburu politikoei erabiltzea ere debekatuta dago. Hori dela eta zenbait kartel kendu erazi dizkigute.

**-Eta zuei zer iruditzen zaizkizue arauak?**

-Batzuk normalak dira, baina ezin esan beste zenbaitekin guztiz konforme gaudenik. Adib., erretzeko debekua-rekin. Gure artean erretzen dutenak bat baino gehiago dira. Ordutegi finko bat jartzeari ere ez diogu zentzu handiegirik ikusten: hobe litzateke behar dugun



Herriko gazte batzuk.

Arg.: Iñaki Amundarain

guztian aukera izatea. Bestalde, gutxieneko adin bat ezartzea ez dago gaizki, baina gehienekoa 18 urte izatea ez dakigu zenbateraino den egokia.

**-Zer eskaintzen dizue lokal honek?**

-Oraindik ez dago gauza handirik: mahaiak eta aulkiak, zenbait joko, telebista eta musika... Baina Ormaiztegin ez aburritzeko aukera ematen digu, ordaindu gabe bildu eta geure artean lasai jarduteko aukera. Hori da garrantzitsua.

**-Nola funtzionatuko du? Nola hartuko dira erabakiak?**

-Gauzak oraindik guztiz lotu gabe dauzkagu. Orain arte kuadrilaka ibili gara. Kuadrila bakoitzak bi ordezkari zituen, eta horrela hartzen ziren erabakiak. Gerorako bazkideen sistema sartzeko asmoa dago. Bazkide bakoitzak

hileko 200 pezetako kuota ordainduko luke. Edozer antolatu edo erosteko diru piska bat ondo etorriko da.

**-Zer asmo dituzue etorkizunerako?**

-Oraindik gauzak martxan jartzen nahiko lan badugu. Baina adibidez, aurreko aste bururako mus txapelketa bat antolatu genuen. Gerora kontzerturen bat edo ez litzateke gaizki egongo, baina ikusi egin behar.

*Oharra: Elkarriketa honen ondotik tirabira batzuk izan dira Gaztetxe/Udaletxe artean. Geroak esango du zertan gelditzen den dena.*

 **Iñaki Amundarain**

**IBAI - ONDO**



**ZURGINTZA  
HALTZARIAK  
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.

Tfona: 880543 BEASAIN

**LEI  
ZEA**



**TABERNA**

**albisu**  
**KRISTALDEGIA**

Ordiziako Industrialdea - Pabellón. 40  
Tel. y Fax: 88 71 58  
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)



## Bergara Ila erretiratzen da

**E**rretiratzera doa Xalbador Bergara pilotari handia, bera izatez etxalartarra bada ere azken 17 urteetan Gabirian bizi da. Hau dela eta elkarrizketa bat egin zion Andoni Aizpuruk Gabiriako Makilari aldizkarirako. Bertan, orain dela 41 urte jaiotako pilotariak profesional munduan daramatzan 20 urteetatik eta beste hainbat gauzetaz hitz egiten du.

Berak ez du inoiz infantil edo jubenilen aurka jokatu, beti zaharragoen aurka, hori zailtzeko ona dela uste du berak. *"Orduan, galduta ere ez zen ezer gertatzen. Ikasten ari ginen eta kito!"* dio Bergarak.

138 partidua jokatutako urteak ba omen ditu Xabadorrek: *"Horrek zeure burua arrunt ongi zaindu beharra eskatzen du. Nik 20 urteotan inoiz ez dut oporrik hartu, eta uda partean batez ere, ia egunero izaten nuen partiduren bat. Etxetik frontoiera eta frontoitik etxera ibili naiz izugarri."* Eskuz binakako 3 txapelen jabe da Bergara, beste bi finaletan ere sartu da. Orain gazteak indarrean datozenek haiei lekua utzi beharra dagoela pentsatzen du, *"punta-puntan ez ibiltzekotan, uztea hobe, ezta?"*



Txuriz jantzita jarraituko ez duen arren ez du pilota mundu hori uzteko asmorik. Asegarcen sartuta dago eta dagoeneko ari da kirol zuzendari lanak egiten. Frontoiak ikusi, pilotarien jarrapena egin, gazteak zaindu fitxak egiteko, etabar, zereginik ez du falta. Enpresa berri hau sortu izana pilotarien mesederako izan dela, dio Bergarak: *"Orain aseguru, baja eta kontratoak dituzte, gainera publizitatea sartu da, telebista... eta hori ona da, gazteak pilotan has daitezen, pilota berriro ere indartu dadin."*

**J**oxe Mari Ruiz Mujika Lazkao pilotaria Gipuzkoako Elkartearteko Txapelketan irabazle izan zen duela gutxi. Horren ondoren, eskuz eskuko senior mailako Euskadiko txapelketa jokatzeko klasifikatu da.

**O**rdizia K.E.-ko bi atleta podiumera igo ziren Gipuzkoako txapelketan. Hauetako bat, Jon Etxeberria, bigarren geratu zen 400 metroko lasterketan 49"91 denbora egin ondoren. Bestea berriz, Lidia Frias hirugarren geratu zen altuera jauzian 1,55 metro gaindituta.

**B**easingo futbol taldea denboraldiaren erdian 6. postuan bazegoen ere gaur egun 10. postuan dago 21 punturekin. Taldeko goleatzaile onena, Iñaki Eskisabel da 6 golekin, ondoren Ipintza 4rekin eta Jadro, Olano eta Eneko 3rekin. Imaz erlojutegiak jokalaririk erregularrenarentzat ematen duen sarian, Orbegoza da lehenengo 18 punturekin, Peio Olano bigarren 13rekin, ondoren Navarro eta Gibelalde 12rekin, Elola 11rekin eta Garmendia eta Eskisabel 9rekin. Azken hau izan zen iaz saria bereganatu zuena.

### EZ EGON BEGIRA !

# Z·M

Gipuzkoako Foru Aldundia  
MUSEO · ZUMALAKARREGI · MUSEOA  
Ormaiztegi · Gipuzkoa  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Casa · Iriarte Erdikoa · Etxea  
20.016 Ormaiztegi · Gipuzkoa  
Tlf.: 943 · 88 99 00  
Fax: 943 · 88 01 38

### ZATOZ ETA PARTE HAR EZAZU

- **IBILBIDEAK:** Museoa eta Goierrin barrena.
- **IKONOGRFIA LANTEGIA:** Jolasean ikasteko ariketak.
- **MALETA DIDAKTIKOAK:** Mailegua dohain.  
\* "Jazkien Baula"  
\* "Euskal komunikabide eta garraioak 1788/1865"
- **ARTXIBO ETA LIBURUTEGIA:** XIX mendeko agiri, irudi, aldizkari, liburuak...
- **ARGITALPENAK:** Aldizkari, katalogo, bideoak...
- **IKERKETA-BEKAK, ERAKUSKETAK,** eta abar.

#### BISITA ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera: 10etatik 13etara eta 15etatik 19etara.  
Larunbatetan: 10etatik 14etara eta 15'30etatik 18'30etara.  
**SARRERA DOHAINIK**

# KUKO

## Jatetxea

*"Otsaila haragizalea"*

—Haragietan aukera handia  
—Okeletan mundu oso bat

Igandeetan jai, erreserbak salbu  
(bataio, jaunartze, e. a.)

Berjaldegi Plaza, z/g ☎ 88 28 93  
ORMAIZTEGI



## Ibiurko urtegitik ibilaldia

Orendain eta Baliarrain azpian geratzen den Ibiur auzoan aurreratuta omen daude expropiatzeko tratuak, eta bertan egiteko diren urtegi eta presaren obrak aurtan has omen daitezke. Hala baieztatu berri du Jorge Letamendia Foru Aldundiko obra hidraulikoetarako diputatuak. Gipuzkoako 10. urtegia izango da eta tolosaldeko herrientzako ura bilduko du.

Ibiur auzoa, hiruzpalau etxe eta baserri, errota bat eta zerrategi batek osatzen dute. Laster ur azpian geratuko dira. Hala gertatzerako, eta Baliarrain eta Orendain inguru horrek itxura berria hartzerako, Ibiur auzoa bixitatu eta ezagutzeko gomendatzen dizuegu. Inguru polita da, errekaaren ondoan doan bidexka, oinez edo bizikletaz zerrategiraino ederki egin daiteke.

Buelta polita egin daiteke, mendiko

bizikletaz esaterako, Altzagaratetik hasita. Gaintza alderako bidea hartu, Altzagarate mendia inguratuz ezkerredera egin eta inguru horretan amaitzen den Baliarraingo bidera jo. Asfaltatutako bide hori hasten den lekuan iturria dago, ur tragu on bat egin, Aralar mendikateari so egin, eta, erraz, aldapabehera ederki joango zara Baliarraingo plazaraino. Hortik ba omen dago Ibiurrera zuzen doan bideren bat; baina errazagoa, Ikaztegiatara doan bidea hartu, eta gero ondo seinatuta dagoen bidegurutzean eskubira.



Hortxe hasten da auzo polit hau, ur azpian geratzerako bixitatzea komeni dena.

*Jon Ander Gorospe*

## Goiztiri AEKren kultur ekintzak

Hona Hemen Goiztiri Aek Euskaltegiak burutu berri dituen kultur ekintzak: Euskal liburu eta disko-azokak (azaro eta abendu amaieratan Ordizian eta Beasainen); krisia nabaritu arren, jende ugari bildu zuen batake zein besteak. OHOk ikasleen idazlan, postal eta Olentzero lehiaketa-erakusketako sarituak: Ordizian, Jakintza ikastolatik, Izaro M. eta Bouchta Kazkaz, Lierni Garmendia, Miren Rezola, Igor Sarasola, Andoni, Leire Mendizabal eta Nerea Hernandez; Urdaneta ikastetxetik, Nadir eta Anjela Saldaña,

Ander C., Josu Perez, Xabier Bello, Garbiñe Sanchez, Elixabete Garcia eta Jose Luis Cid. Beasainen, berriz, Alkartasuna Lizeotik, Adriana Lozano, Igor Urzelai, Agurtzane Agirre, Naia-ra Zubeldia, Gorka Fernandez, Asier eta Aitor Irazustabarrena, Jesus Montero, Xabier Azurmendi eta Alain Beaskoa. La Salle-San Josetik Jose Manuel Rodriguez izan zen saritua.

III Txiste idatzien lehiaketako irabazleak: Yolanda Aparicio beasaindarra, Juan Mari Apaolaza zegamarra

eta Klara Amoztegi olaberriarra izan dira. Bestalde, II Txiste idatzien lehiaketara aurkeztutako txiste guztiak libruska batean argitaratu ditu Goiztiri-Aek-k eta Goierriko herri guztieta-ko Kultur etxe eta liburutegietan, Ordiziako Goiztiri Euskaltegian, Hegoa, Orbela eta Orlegi tabernetan, Beasaingo Euskaltegian, Basakana, Loianaz eta Arrano tabernetan, Lazkaoko Euskaltegian, Gerriko eta Manuelene tabernetan dituzte.

**Irakur**

**EUSKALDUNON**

**Egunkaria**





## “984”, “Drindots” (Lagin disketxea)

Azken hilabeteotan entzuna izango duzue jadanik Drindots talde goierritarren 2. diska hau. Iazko udan kaleratu zuten Beasaingo Lagin disketxe berriaren eskutik. Grabaketa munduan “Maritxu” ospe-tsuaekin eman zituen lehen pausak taldeak (Jon Urdangarin, Xabi Auzmendi, Igor Oiarbide, Mikel Caballero eta Triku Arrizabala), kanta honek berbena-merkatu horretan sendo finkatzen lagundu zielarik (lehen diskaren salmentak ondo joan ziren -3.000 aletik gora-

2. hau ere nahiko ongi saltzen ari omen da). Euskal Herriko edozein herritako festa egitaraua begiratzea besterik ez duzue...

Pello Irizar musikariaren eta Juan Ros teknikariaren disketxe berriaren azken emaitzak hau eta Kilometroak-eko zinta ditugu. Diskaren azala, J.F.Bakero beasaingarrak diseinatu zuen eta lehen diska-rekin konparatuz, diseinu zaindua-goa, dudarik gabe. Pozik daude Drindots-ekok lan honekin, lagunarteko grabaketa patsadatsua izan baitzen (goierritarren artean dena). Aipagarria da beren produkzio propioa dexente haundiagoa dela: aurreko LP-an 4 ziren, oraingoan 9 kanta dira eurenak eta bertsio bakar bat dago.

Pop-rock-aren adarretan ibili dira. “984” da haserako pieza, kanta rockero bat, kitarra doinu indartsu batekin. “Bakarrik” amodio galduen inguruan dabilen erromantikoa, kanta gozoa. “Jeloskor” pop-eroan, lagun duten Pablo Nogales naparrak sartzen du saxofoi doinu triste eta eder hori. “Presarik ez” abestiak, dantzara bultzatzen gaitu, juerga giroko kontuak aipatuz. “Aitorren...” kantua “Maritxu”ren antzeko nahasketa da, “Highway to

hell” bertsionatuz. Joseba Tapiaren laguntza izan dute honetan, bere trikitixa indartsuarekin. Zer esango ote dute Young anaiek? “Nahi eta ezin”, balada tankerakoa da. Oso polita eta melodikoa. Nabarmendu entzuten den kitarra akustiko hori, Ordizian bizi den Stuart Kelling eskoziarrak sartu zuela. “Pottolo pottolo”n farre egiten diote beren berbena talde izateari. “Zergatik”ek reggae aldera jotzen du, zoritxarrari buruz diharduelarik. “Nola demontre!”n funky-rap erritmoak, euskal kanta ezagun batekin nahastuz. Diska, “Introduce” kanta lasaiak ixten du.

Egia esan, diska osoa berbena girora eratu dute. Ez dute ezer berriarik egin nahi izan, E.H.-an gutxiago lantzen den pop-rock estiloa betetzea baizik. Duintasun osoz egindako lan bat dela esan behar. Errez entzuten diren kantak, beraien dantzaldi askotan entzungo ditugunak, edozein txokotan. Itxaropentsu aurkezten zaie 94.a.

 **Musikeroak**

## ARROTEGIAK

— B —  
ELOSEGI  
— D —  
E  
— G —  
ARACO  
— S —

Poligonoa 201 Tfnoak.: (943) 88 09 79-88 80 89  
Fax: (943) 88 80 89 **OLABERRIA** (Gipuzkoa)

Ctra. de La Puebla, s/n Tfnoa.: (941) 10 02 09  
**LAGUARDIA** (Rioja Alavesa)



**880035**

Pintxoak  
Ogitartekoak  
Bazkariak  
Afariak

**ORDIZI**

## GOIERRITARRA



**88 96 12**




**ZAILDU  
EZAIGUZU**



**"DISEINU ESKLUSIBO ETA  
KALITATE BIKAINZKO  
BETAURREKOEN BILA NABIL"**  
MULTIOPTICA Sen Sara eta Berto  
eustura eskusibook

**"GARANTIA OSOA  
ESKATZEN DUT"**

MULTIOPTICA Sen garantia  
txartelak EUROPAko  
3000 optiketan balio ditu.



**J. LARRAÑAGA OPTIKAN  
ERRAZTUKO DIZUGU**

**2.850 pta.**



**"ETA PREZIO ONA,  
JAKINA"**

**2.850 pta.** bakarrik.



lbargaray. 16 - BERGARA  
J. Carlos Guerra. 1 - ARRASATE  
J. M. Baradian Enparantza. s/n - ORDIZIA



**Fotokonposaketa lanak egiten ditugu **GOIERRITARRA**n, kartelak, foiletoak, inprimakiak eta mota hauetako lanak. "ANTZA" inprimategiarekin bat (*maisuen eskutik*) zure inprimategi lanak egingo ditugu. Deitu lasai ☎ 88 96 12 ♣**



**i**txura baino  
gehiago...

**ANTZA**

FOTOKONPOSAKETA

INPRIMATEGIA

Industrialdea 1-2 • ☎ (943) 37 15 45 - Faxa: (943) 36 10 48 • 20160 LASARTE-ORIA